



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko irailaren 17a

72. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuako kideen ordainsari osagarriak bertan behera uzteari buruzkoa. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzen duena. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa; izan ere, gure erkidegorako murrizketak dakartzaten errege dekretuak onartzen ditu eta ez du horien aurkako errekurtsorik aurkezten, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da anbizio handiagoarekin borroka dezan iruzur fiskalaren aurka. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan “itzalpeko bidesaria” izeneko sistemaren bitartez egindako azpiegituren emakida-hartzailei ordaindutako zenbatekoen kostua eta behetik birnegozia ditzan enpresa horiei urtero ordaindu beharreko zenbatekoak. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan osasun arloko entitateekiko itunei eta deribazioei buruzko plan berria. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (14. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ontzat har dezan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2012ko uztailaren 10ean emandako epaia. Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldek aurkeztu dute (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue Bideko seinalizazioa hobetu dezan. Mozioa erretiratzea (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Inasako lanpostuak mantentzeko formulak bila ditzan. Mozioa erretiratzea (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren bitartekoak ezar ditzan, aurreikusitako egunean ordain daitezzen Prepara programako langabetuei bideratutako prestazioak. Mozioa erretiratzea (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez baztertzen baita Etxarri-Aranazko Udalak iragan irailaren 3an onetsitako mozioa . Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu NUPeko ikasle eta langileen murrizketen aurkako aldarrikapenak guztiz zilegi direla eta haien erabateko adierazpen askatasunez manifestatzeko eskubidea ziurtatu behar dela. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Osasunbideak eginiko lizitazioan ezarritakoa betetzen dela ziurtatzeko eginen diren kontrolei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (19. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri hartu dituen Nafarroako Gobernuak Nafarroako iparraldeko eskualdeek LTDko berezko lizentziak izan ditzaten, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (20. or.).
- Galdera, ospitaleguneko sukaldeei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 2012an Moderna Fundazioari eginiko ekarpenari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (21. or.).
- Galdera, gastu-mugaren zenbatekoak 2000tik 2013ra izandako bilakaerari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak langile kopuruaren bilakaerari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egin (23. or.).
- Galdera, men ez egitea eta eraso egitea leporatuta Foruzaingoak Larragan gazte bat atxilotu zuela-eta, gertakari horren inguruabarrei buruzkoa. Idatziz erantzuteko galdera bihurtzea (23. or.).

**H SAILA:****Bestelako testu arau-emaileak:**

- 2/2012 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 25ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (24. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuo kideen ordainsari osagarriak bertan behera uzteari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuo kideen ordainsari osagarriak bertan behera uzteari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta eskatzen du presaz eta irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Gobernuo kideen ordainsari osagarriak bertan behera uzteari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**2.** Foru lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuo kideen ordainsari osagarriak bertan behera uzteari buruzkoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroak egoera ekonomiko eta sozial larri-larria bizi du, eta Nafarroako Gobernuak, gure lurraldeko herritarren gehiengoaren borondatearen aurka, ongizate estatuaren zutabeak kolpatzen eta eraisten ari da.

Pribatizazioak, zerbitzu publikoen kalitatearen murrizketa, hezkuntza eta osasun arloko profesional publikoen gutxitze larria, gizarte-estalduren mugaketa sozialki onartezinak... UPNren Gobernuak, hori dena justifikatzeko, "austeritatearen" argudioa darabil; errenta handieneko pertsona eta entitateen interesei aplikatzen ez zaiena, hain zuzen ere.

Hortaz, PPren Espainiako Gobernuak Nafarroako herritarren baldintza eta eskubide sozialetan andeatze larriak planteatzen ari den une honetan, aldatu egin behar dira 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legean jasotako moduko prebendak, Nafarroako Gobernuo lehendakariaren eta kontseilarien ordainsariak "osatzekoak".

Foru lege proposamen hau aplikatzeak ez luke inolako gasturik areagotuko; aitzitik, Nafarroako Gobernuari aukera emanen dio izaera sozialeko gastuei ekiteko dirusarrerak areagotzeko.

Foru lege proposamen honen helburuaren xalotasuna ikusita, eta premiazkoa denez lehenbailehen indarrean sartzeari, komeni da proposamena premiaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

**Artikulu bakarra.**

Indargabeturik uzten da 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren legeko 8. artikuluko 6. idatz-zatia.

**Xedapen indargabetzailea.**

Indargabeturik uzten dira foru lege honetan

ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko arauguztiak.

**Azken xedapen bakarra.**

Foru lege hau argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean eta izanen da eraginkor.

## **Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Foru lege proposamen honen xedea da zergen gehikortasuna hobetzea; hartara, errenta handienek gehiago ordainduko dute, eta urtean 24.000 eurotik gorako errendimenduen kapital-errendimendua igoko da. Zerga-tasaren igoerak ez du inolaz ere ekarriko Estatuan baino gehiago ordaintzea. Proposatutako igoerak, zeina betiere egonen baita Parlamentuan ahal den adostasun handiena bilatzearen mende, diru-bilketa igotzea ekarriko du zalantzarik gabe, halako moduan non aurre egin ahal izanen baitzaie egungo gizarte-baharrizanezi eta ekonomia sustatzeko eta enplegua sortzeko politikak egin ahal izanen baitira.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 59.1 artikulua eta berrogeigarren xedapen gehigarria aldatzea. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

**1. artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren aldaketa.

**Bat.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 59.1 artikulua aldatzea. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. 2012an –foru lege hau indarrean sartu ondoren, hain zuzen ere– eta 2013an bukatzen diren zergaldietarako ondorioekin.

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa, zenbateraino (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		3.825	13
3.825	497,25	4.674	22
8.499	1.525,53	9.027	25
17.526	3.782,28	13.279	28
30.805	7.500,40	14.675	36
45.480	12.783,40	7.927	40
53.407	15.954,20	34.593	42
88.000	30.483,26	37.000	43
125.000	46.393,26	55.000	44
300.000	116.000	Gainerakoa	45”

Bi. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko berrogeigarren xedapen gehigarria aldatzea. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. 2012an –foru lege hau indarrean sartu ondoren, hain zuzen ere– eta 2013an bukatzen diren zergaldietarako ondorioekin.

“Berrogeigarren xedapen gehigarria.- Aldi bate-

rako karga osagarri bat ezartzea Pertsona Fisikoen Errentari buruzko Zergan.

58. artikulua aipatzen duen zergaren kuota osoa ondoko zenbatekoekin igoko da:

a) 59. artikulua aipatzen duen likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatuzetik heldu dena:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoaren igoera (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		3.825	0
3.825	0,00	4.674	0,50
8.499	23,37	9.027	0,50
17.526	68,50	13.279	1,50
30.805	267,69	14.675	2,00
45.480	561,19	7.927	2,50
53.407	759,37	34.593	3,00
88.000	1.797,16	37.000	4,00
125.000	3.092,16	55.000	5,00
175.000	5.092,16	125.000	6,00
300.000	10.717,16	Gainerakoa	7,00

b) 60. artikulua aipatzen duen aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatuzetik heldu dena:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoaren igoera (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	6.000,00	1
6.000,00	60,00	18.000,00	3
24.000,00	600,00	Likidazio-oinarriaren soberakina	6

Tributu arloko araudian 59. artikuluko tarifaren edo eskalaren aplikazioa aipatzen baldin bada, eskala hori aplikatuko da, karga osagarria gehituta.”

## **Foru Lege proposamena, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Lege-aldaketa honen xedea da autonomoei eta profesionalei laguntzea, baldin eta beren fakturak ez badituzte kobratzen jaulkipenaren hiruhilekoan edo hilean, baizik eta epe hori iragan eta gero. Eta badute beste zailtasun erantsi bat ere; izan ere, fakturaren zenbatekoa ez jasotzeaz gain, jaso gabeko zenbateko horren BEZa ordaindu behar diote Ogasunari.

Egungo krisi ekonomikoak ez-ordaintze ugari eragin ditu, eta horrek egoera zinez zailean jartzen ditu autonomo eta profesional asko. Jaso gabeko zenbatekoen BEZa Ogasunari ordaintzeko betebeharra ezartzen du egun legeak, eta horrek nabarmen larriagotzen ditu autonomo horien berezko zailtasunak.

### **Artikulu bakarra.**

“25. bis artikulua. Foru lege honetako 24. eta 25. artikuluetan xedatua gorabehera, autonomoek edo profesionalek jaulkitako fakturak ez dira likidatuko aitorpena egin beharreko hilean edo hiruhilekoan, baldin eta epe horretan kobratu ez badira, baizik eta faktura hori kobratzen den epearekin bat datorren epean. Hori guztia ez da eragozpen dokumentu bidez jasota gera dadin faktura jaulki izana jaulkipenaren epean, informazio huts gisa”

## **Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

1. Agintzea Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENEA**

Euskararen Legea onartuz geroztik jada 26 urte pasa dira. 26 urte hauetan nafar jendarteak aldaketa sakona jasan du eta baita euskararen egoerak ere. Bai ezagutza, zein erabilera aldetik ere.

Euskararen Lege honek, bere Nafarroako 18/1986ko Euskararen Legearen arabera III. Tituluaren izenburua Komunikabide Sozialei buruzkoa da. 27. artikulua arabera "Administrazio Publikoari dagokio komunikabide sozial publiko eta pribatu

tuetan euskararen presentzia mailaz mailakoa sustatzea".

Komunikabideak dira euskara ikusgarri egiten dutenak. Euskararen bisibilidade publikoari dagokionez, euskara agerian jartzeko modu nagusia eskaparate komunikatiboa da. Esan nahi baita, euskara bista jartzen dutela komunikabide sozialek. Horrez gainera euskaldunek eskubidea behar dute izan euskaraz ari diren komunikabideak izateko, bertatik berriak entzun, kultura, zinema eta dena delakoa jasotzeko.

2012ko aurrekontuen harira, Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak kentzea ebatzi zuen alde bakarretik, komunikabideen iritzirik jaso gabe eta, okerre dena, euskararentzat izanen zuen eragin kaltegarria aintzat hartu gabe. Diru-laguntzarik gabe utzi zituen komunikabideak horrek ekarri duen ondorengo komunikabide askoren egoera makurra izatera arte.

Arartekoak berak, apirilaren 13an helarazi zion Parlamentuari gai honen inguruan egindako txostena, Parlamentuak hala eskatu ziolako. Bertan irakurketa zehatza egiten da "Gizarte komunikabideei dagokionez, herritarrek dituzten hizkuntza eskubideen" benetako egoerari buruz.

Bertan ageri da urtez urte aurrekontuetan partida bat agertu beharko lukeela 18/1986 Euskarari buruzko Legearen 27.1 artikulua bete ahal izateko. Ez da nahikoa esatea neurtu ezin diren adierazle araberakoa izanen dela laguntza. Komunikabideetan euskara erabiltzen dela zaintzea Administrazioari dagokio legearen arabera eta nekez eginen da hori dirurik gabe.

Hau guztia azalduz, ondoko lege proposamena aurkeztu diogu Nafarroako Parlamentuari bertan eztabaidatua izan dadin:

**Artikulu bakarra.** Puntu berri bat gehitzen zaio 27. artikuluari.

1 bis. Plan hauek gauzatu ahal izateko, Nafarroako Gobernuak urteroko aurrekontuetan berriaz aitortuko du planari dagokion diru kopurua.

## **Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Agintzea neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena**

ZIOEN AZALPENA

Foru lege proposamen honen xedea da zerga-sistemaren gehikortasuna eta sistemaren diru-bilketarako ahalmena hobetzea.

Azken urteotan onetsitako erreforma fiskal gehien-gehienek nabarmen gutxitu diete presio fiskala errenta handienei eta kapital-errentei, ondasun handieietan enpresa-irabaziei.

Politika publikoak eta oinarritzko gizarte-zerbitzuak finantzatzeko zailtasun handiko une honetan –izan ere, krisi ekonomikoak diru-sarreraren jaitsiera

eragin du–, beharrezkoa da zergadun eta errenta horiek ahalegin fiskal handiagoa egin dezaten.

Hartara, foru lege proposameneko 1. artikulua proposatzen du PFEZeko zerga-tasak handitzea urteko 45.480 eurotik gorako likidazio-oinarri orokorrenzat, gehienez ere % 56koa izateraino –indarreko % 49aren aldean– 300.000 eurotik gorako likidazio-oinarrientzat.

Proposameneko 2. artikulua xedatzen du urteko 6.000 eurotik gorako kapital-errententzako presio fiskala igotzea, zerga-tasa % 33koa izateraino –indarreko % 27aren aldean– urteko 24.000 eurotik gorako kapital-errententzat.

3. artikulua proposatzen du 2007ko ekitaldira bitarte indarrean egondako Ondareari buruzko Zerga berreskuratzea. Salbuetsitako gutxienekoa 300.000 eurokoa izanen litzateke, indarreko 700.000 eurokoa izan beharrean.

4. artikulua proposatzen du Sozietateen gaineko Zergako zerga-tasa orokorra igotzea, % 30etik % 35era, eta indarreko % 27ko zerga-tasari eustea enpresa txikien kasuan.

5. artikulua proposatzen du indarreko % 1eko zerga-tasa kentzea kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen kasuan.

Azkenik, xedapen gehigarriak proposatzen du Nafarroako Gobernuak azterlan sakon bat egitea Nafarroako iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren tamainari buruz.

**1. artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginako 59.1 artikulua eta berrogeigarren xedapen gehigarriko a) letra aldatzea, 2012an eta hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietarako ondorioekin. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona testu berria:

“59.1. artikulua. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:



Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		3.825	13
3.825	497,25	4.674	22,5
8.499	1.548,90	9.027	25,5
17.526	3.850,78	13.279	29,5
30.805	7.768,09	14.675	38
45.480	13.344,59	7.927	44
53.407	16.832,47	34.593	47
88.000	33.091,18	37.000	50
125.000	51.591,18	50.000	52
175.000	77.591,18	125.000	54
300.000	145.091,18	Gainerakoa	56”

**2. artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 60. artikulua eta berrogeigarren xedapen gehigarriko b) letra aldatzea, 2012an eta hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietarako ondorioekin. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegitzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona testu berria:

“60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0.00	6.000,00	21
6.000,00	1.260	18.000	27
24.000,00	6.120	Gainerakoa	33”

**3. artikulua.** Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea

2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, indargabetuta gelditzen dira Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 24ko 22/2008 Foru Legeko 2. artikulua eta Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legeko 2. artikulua, zeinen bidez aldatu baitzen Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 19ko 13/1992 Foru Legea.

**4. artikulua.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea.

2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela gelditzen da 50.1.a) artikulua:

“50. artikulua. Karga-tasak:

1. Ondokoak izanen dira zerga-tasa orokorrak:  
a) Ehuneko 35.”

**5. artikulua.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea.”

2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, indargabetuta gelditzen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50. artikuluko 5. idatz-zatia.

**Xedapen gehigarria.** Iruzur fiskalaren aurkako borrokaren emaitzak hobetzeko neurriak.

Nafarroako Gobernuak azterlan bat egingen du, foru lege hau onetsi eta urtebete baino lehen, Nafarroako iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren tamainari buruz, desagregazioa eginez

lurraldearen, sektoreen eta zergen arabera, eta aipatu azterlana eguneratuko du bi urtean behin, Europar Batzordeak ezartzen duen metodologiaren aurrerabideen arabera. Txosten hori Nafarroako Parlamentuari igorriko dio, eztabaida dezan.

**Xedapen indargabetzailea.**

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapena.**

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa; izan ere, gure erkidegorako murrizketak dakartzaten errege dekretuak onartzen ditu eta ez du horien aurkako errekurtsorik aurkezten.**

*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa; izan ere, gure erkidegorako murrizketak dakartzaten errege dekretuak onartzen ditu eta ez du horien aurkako errekurtsorik aurkezten.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**JABELDURAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari.

Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzko jabeldura, Nafarroako Gobernuak gure erkidegorako osasun, hezkuntza eta gizarte arloko murrizketak dakartzaten errege dekretuak *de facto* onartzeari eta ondorioz horien aurkako errekurtsorik ez aurkezteari buruzkoa.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da anbizio handiagoarekin borroka dezan iruzur fiskalaren aurka.**

*SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita anbizio handiagoarekin borroka dezan iruzur fiskalaren aurka.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren txosten baten arabera, nazioko nahiz nazioarteko erakundeek hamar azterlan eta ebaluazio daude, Espainiako iruzur fiskala eta ezkutuko ekonomia BPGaren ehuneko 23 ingurukoa dela diotenak. Horrek esan nahi du 240.000 milioi eurotik gora gelditzen direla zergak ordaindu gabe eta 90.000 milioi euro gutxiago sartzen dela urtero ogasunean.

Datu hori, zeina guztiz kezagarria baita ekitatearen, elkartasunaren eta zerga nahiz tributu arloko justiziaren ikuspuntutik, are kezagarriagoa da krisi ekonomikoa bizi den garaietan.

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak azken urteotan behin eta berriro erakutsi du, parlamentuan aurkeztutako ekimenen bidez, iruzur fiskalaren aurkako borrokarako bitartekoak optimizatu eta areagotu beharra dagoela. Ekimen horietako batzuk aurrera atera dira, eta beste batzuk, aldiz, bazter gelditu dira. Edonola ere, gaur egun ere jarraitzen dugu pentsatzen Nafarroan askoz ere gehiago egin behar dela eta egin daitekeela iruzur fiskalaren aurkako borrokan.

Badaude datu batzuk erakusgarri direnak: 2012an, Ikuskapenerako Zerbitzuak 28 ikuskatzailerik dauzka –15 teknikari eta 13 kudeatzaile–, eta, horiez gain, zuzendaria, atalburu bat –ardurapeko langilerik gabe–, 5 unitateburu, bulegoburu bat, 4 administrari eta 2 zerga-agente –lau ziren izatekoak, baina bi bertan behera geratu dira–. Guztira, 42, eta urtean 300 ikuskapen egiten dituzte. Urtean eginiko ikuskapen-kopuru hori ez da aldatu duela hamabi urte baino gehiagotik.

Antolamendu horrekin, ikuskapenak 147,2 milioi euro berreskuratu zituen 2010ean. Baldin eta Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuak berreskuratzen duen diru-kopuru hori alderatzen bada haren funtzionamenduak sortzen duen gastuarekin –2010ean 2,8 milioi eurokoa izan zen–, ondorioztatzen dugu ikuskapenak bere kostua halako 53 berreskuratu zuela.

Kezagarriena da ezen, kostuaren halako 53ko errentagarritasun-ratioa izanik, UPNko Gobernuak erabaki duela ikuskapenean diru gehiagorik ez inbertitzea. Aitzitik: tributu-ikuskapenean eginiko gastua ehuneko 39,3 jaitsi da 2010etik. Horrela, bilakaera hau gertatu da: eginiko gastua 2,8 milioi eurokoa izan zen 2010ean, eta aurrekontuan jasotako gastua, 2012an, 1,7 milioi eurokoa da. UPN-

ren politika horren eraginez, Nafarroako Foru Ogasuneko langileen ratioa, herritar bakoitzeko, 2.000koa da; ELGE-Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen batez bestekoa, ordea, 800ekoa da.

Bestalde, kontrajarpen bat dago ikuskapen-zerbitzuak berreskuratutako kopuruaren eta urtero preskribatzen denaren artean –10 milioi euro urtean, 2000. urtetik; gaur egun, 100 milioi baino gehiago–, eta zenbateko horren ehuneko 30 egin du ikuskapen-zerbitzuak aurkituriko zorrak.

Horrez gain, eta kudeaketari dagokionez, Comptos Ganberak fiskalizazio-txosten bat aurkeztu zuen 2000. urtean, “Dirubilketa-kudeaketa, 1998ko ekitaldia” aurrekontu-programari buruzkoa. Hamahiru urte geroago, 2011ko apirilean, Comptos Ganberak gai berari buruzko beste txosten bat egin zuen, 2009. urtearen gainekoa. Haietako datuetan oinarriturik, PSNk eginiko azterlan batean berretsi egiten da 2009an beren horretan segitzen zutela 1998ko funtzionamendu-eskasiek. Eta, zehazkiago, azterlanak adierazten zuen dirubilketa-zerbitzuak 2009an 217,9 milioi euroko zorra kudeatu zuela bide exekutiboan. Honako emaitzak lortu zituen (euroak, milioitan adierazita):

Kobratua	23,7 (% 10,8)
Hartzekodunen konkurtsoa	10,7 (% 4,9)
Preskribatua	9,1 (% 4,2)
Geroratua	7,4 (% 3,4)
Kobraezinak	6,9 (% 3,2)
Erantzukizun-bideratzea	4,2 (% 1,9)

Horretatik ondorioztatzen da premiamendubidetik kudeatzen den zorraren guztizkoaren ehuneko 10,8 bakarrik kobratzen dela.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du asmo handiagoko borroka egin dezan iruzur fiskalaren aurka, estrategia berri bat ezarriz, helburu berriekin eta metodologia berriekin. Eta, gutxienez ere, honako helburu hauek ezar daitezten:

1. Iruzurraren aurkako plan integral berri bat, 2015era bitartekoa, prestatzea, emaitzak irizpide hauen arabera hobetzeko: asmo handiagoko estrategia bat finkatzea, helburu zehatz, neurgarri eta ebalagarriak izanen dituena.

2. Dirubilketa-helburuak nabarmen handitzea; epe labur, ertain eta luzeko estrategia bat garatzea, eskura dauden baliabide materialak eta giza baliabideak optimizatzeko.

3. Zuzendaritza beraren pean bateratzea ikuskapen, kudeaketa eta dirubilketa zerbitzuak, zuzendaritza horrek ezar dezan Foru Administrazioaren osotasunarekiko nahitaezko koordinazioa –iruzurraren aurkako unitate berezia sortzea komeni ote den aztertzea–.

4. Ikuskaritza fiskaleko plan berri bat taxutzea.

5. Gehienbat Foru Ogasunarentzat lan egiten duten enpresa publikoen zorren kudeatzaileak

behar bezala atxikitzea, tributu-agentearen figura-  
ren bitartez.

6. Comptos Ganberaren gomendioak betetzea.

7. Herritarrak sentsibilizatzeko programa bat garatzea.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 31n

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da azter dezan “itzalpeko bidesaria” izeneko sistemaren bitartez egindako azpiegituren emakida-hartzaileei ordaindutako zenbatekoen kostua eta behetik birnegozia ditzan enpresa horiei urtero ordaindu beharreko zenbatekoak.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita azter dezan “itzalpeko bidesaria” izeneko sistemaren bitartez egindako azpiegituren emakida-hartzaileei ordaindutako zenbatekoen kostua eta behetik birnegozia ditzan enpresa horiei urtero ordaindu beharreko zenbatekoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azpiegiturak –gehienbat errepideak– eraiki, ustiari eta kudeatzeko erabilgaitako itzalpeko bidesaridun sistemak lankidetzara publiko-pribatuko baliabide bat dira, herri lanen eta azpiegitura orokorren garapenaren arlokoa, azken urteotan halako

erabilera bat izan dutenak, baina erabilera esanguratsua, betiere.

Nafarroan ere erabili izan dira. Sistema horien abantailak abantaila, eta desabantailak desabantaila, haien bidez obra garrantzitsuak finantzatu dira, eta, uneotan, diru publikoari zama handia suertatzen zaizkio kasuko azpiegituren emakida-hartzaileei ordaintzen zaizkien kanon ezberdinei aurre egite aldera aurrekontuetan jasotako eta helarazitako kopuruak.

Parlamentu-talde honen aburuz, eta gogoan izanik A-12 bezalako errepideetan izandako zirkulazio-gorakada nabarmena, aurreikuspenez haragokoa, gehiegizkoa da ordaindutako urtealdi-kanona, eta alde handiz gaintzen ditu azpiegitura eraiki eta ustiatzearen finantzaketa- eta amortizazio-kostuei aurre egiteko moduko bideragarritasun-eta arrazoizko itzultze-eszenarioak.

Aurrekoaz gainera, krisi ekonomikoko une hauetan baliabide publiko urriak optimizatu beharra ere kontuan hartu behar da.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du azterlan bat egin dezan itzalpeko bidesaridun sistemaren bitartez Nafarroan eraikitako azpiegitura guzti-guztien emakida-hartzaileei ordaindutako zenbatekoen kostuari buruz eta beherantz birnegozia ditzan haiei urtero ordaindu beharreko zenbatekoak.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 31n

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan osasun arloko entitateekiko itunei eta deribazioei buruzko plan berria.**

*NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aurkez dezan osasun arloko entitateekiko itunei eta deribazioei buruzko plan berria.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Osasun Departamentuak 2011n 50 milioi euro baino gehiago jarri ditu osasun-arloko itun eta deribazioetarako. Kopuru hori bideratu da erakunde pribatuei ordaintzera halako egintza batzuenatik non, gehienak, Osasunbidean egin ahalko bailirateke, baldin eta sistema publikoa beharrezkoak diren baliabideez hornituko balitz.

Comptos Ganberak berak ere zenbait txostenetan adierazi izan du ezen Osasun Departamentuak tankera horretako itun eta deribazioetarako alegatzen duen ustezko aurrezpena ez dela arrazoizkoa, ez dagoela behar bezala justifikatuta, eta are desaurrezkia ere egon daitekeela. 50 milioi euro horiek sistema publikoan inbertitzeak, alabaina, 1.000 lanpostu inguru sor litzake.

Osasun Departamentuak, jadanik 2011ko irailan, eta osasun-gastua murrizte aldera taxututako "doikuntza plana" delakoan, konpromisoa hartu zuen entitate pribatuekiko itun eta deribazioak berrikusi eta urritzeko. Baina 2012ko aurrekontu orokorretan, kontusail horien gutxitzea testimonial

hutsa izan da. Testuinguru horretan, hilabeteak dira departamentua, teoriarik, itun eta deribazioen plan berri bat prestatzen hasi zenetik, zeinean aztertuko baitira osasun-sistemaren beharrianak eta, ustez, itun eta hitzarmen horiek urritzerantz joko baita. Hala ere, oraindik ez daukagu plan horren inolako berririk, eta horrek zuzeneko eragin izanen luke aurrekontuen prestaketan.

CUNen kasuan, gainera, bada berariazko itun bat, bertako langileei eta haien familiei osasun-zerbitzua borondatez emateko.

Horri buruz, Comptos Ganberak, 2009ko abuztuan, fiskalizazio txosten bat egin zuen Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun zerbitzua emateko kontratuari buruz, 2008ko maiatzean indarrean sartu eta 2011ko abenduaren 31n bukatu zena.

Txostenak azaltzen zuenez, Osasunbideak kontratazio-espeditentean adierazten zuen ezen, orduko baldintzetan, foru erkidegoko sare publikoak ezin zuela bere gain hartu zerbitzu horren kudeaketa, gainerako erabiltzaileentzako zerbitzuen kalitatea kaltetu gabe; horregatik, Nafarroako Unibertsitatearekin osasun-prestazio hori kasuko laguntza-kontratuaren bitartez hitzartzea proposatzen zen. Edozein modutan, agerikoa da ez zegoela baieztapen horiei eusteko moduko inolako txostenik.

Comptos Ganberaren aipatu txosteneko ondorioetan hitzez hitz adierazten denez, "interes publikoari erantzuteari buruzko justifikazioa indartzea komeniko zen; batez ere, zerbitzu hori bitarteko publiko berekiekin ematea praktikan ezinezkoa izateari buruzko aipamenarekin, eta/edo horrek eraginen zuen kostuarenarekin."

Oso esanguratsua, orobat, amaierako gomendioa: "Comptos Ganberak gomendatzen du Osasunbideko zerbitzuek azter dezaten, kontratu hau amaitu baino lehen eta bere egiazko emaitzak, kostua eta tartean dauden gainerako inguruabar objektiboak kontuan hartuta, arrazoizkoa ote den 2012tik aurrera kanpoan kontratatzen jarraitzea pertsona-talde horri ematen zaion osasun-prestazioa."

Gomendio horrek are indar handiagoa hartzen du osasun-arloko itunei eta deribazioei buruz gan-

bera horrek berak 2011ko urrian emandako azken bi txostenak ikusita; izan ere, gero eta zalantza-koagoak dira jarduketa horiek justifikatzeko erabili diren argudioak.

Hitzarmen horren kostuari dagokionez, 2008an diru publikoari ekarri zion kostua 3,3 milioi eurokoa izan zen. Hiru urte geroago, 2011ko aurrekontuan, 5,6 milioi euro esleitu ziren horretarako. 2011ren bukaera aldera hitzarmena iraungi egin zen, eta departamentuak urtebeterako luzapen bat izenpetu zuen, itun bidez, zeina 2014ra arte luza baitzitekeen. Eta luzapenaren lehenbiziko urte honetan, 2012an, 6.941 pertsonako kolektibo hori artatzeko 5,3 milioi euro ipini dira.

Osasun Departamentuaren arabera, urteko zenbatekoa, onuradun bakoitzeko, 781 eurokoa da, sare publikoan biztanle bakoitzeko eginiko batez besteko gastuaren aldean, zeina 1.016 euroan balioesten baitu Departamentuak. Argudio iruzurti eta zama ideologiko handikoa da, Nafarroako Gobernuak maiz erabili ohi duena, guri sinetsarazi nahian arlo pribatua merkeagoa dela publikoa baino, eta hori faltsua da zeharo, eta Comptos Ganberak ere agerian utzi izan du hori bere txostenetan.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu, eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mozio hau onetsi eta hilabete epean aurkez dezan jadanik iragarritako plan berria, osasun-arloan entitate pribatuekin itunak eta deribazioak egitekoa, zeinak sistema publikoaren egiazko beharrianak aztertuko baititu, eta orobat aurkez dezan entitate pribatuentzako baliabideak sare publikoaren zerbitzua handitzeko erabiltzearen aukerari dagokion kalkulu ekonomikoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu Itun Planaren barrenean txosten bat presta eta aurkez dezan, sakonki aztertuko duena, Comptos Ganberak gomendatuari jarraikiz, Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun-laguntza oinarrikoa eta espezializatua kanpoan kontratatua mantentzearen arrazoizkotasuna.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kolektibo hori Osasunbidean pixkanaka sartzeko plan bat presta dezan, ituna 2013rako luzatzea izenpetu aurretik. Plan horrek 2013ko abendua izanen du gehieneko epe gisa.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 31n

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta, Bakartxo Ruiz Jaso eta Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ontzat har dezan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2012ko uztailaren 10ean emandako epaia.**

### **NAFARROA BAI ETA BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita ontzat har dezan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2012ko uztailaren 10ean emandako epaia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Inés del Río Prada tafallar preso 1987z geroztik dago kartzelaratua. Espetxe ezberdinetatik igaro ondoren, A Coruña-ko Curtis presondegian ari da zigorra betetzen. Zortzi prozesu penaletan zenbait kartzela-zigorretara izan zen kondenatua.

2000ko azaroan, delituen arteko lotura legal eta kronologiko estua aztertu ondoren, Auzitegi Nazionalak zigor ezberdinak uztartu eta ezarri zuen bete beharreko zigorra 30 urtekoa zela; hots, 1973ko Kode Penaleko 70. artikulua araberak aplikatu zitekeen handiena, kode penal hori baitzen kasuko aldiaren indarrean zegoena. Espetxe-onurei (bereziki, zigor-arintzeari) buruzko Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia aldatu egin zen 2006an. Nahiz eta, 1994ko martxoaren 8ko epai baten arabera, 1973ko Kode Penaleko 70. artikuluan ezarritako gehieneko zigorra, 30 urtekoa, zigor "berri eta autonomo" gisa hartzen zen, "zeinari aplikatzeko baitzen legeak aurreikusitako espetxe-onura", Auzitegi Gorenak jarrera aldatu zuen 2006ko otsailaren 28ko epai batean, eta 197/2006 doktrina ezarri zuen, "Parot doktrina" gisa ezagutua, zeinaren arabera zigor-arinketa banan-banan aplikatu behar baitzitzaien zigor bakoitzari, eta ez 30 urteko gehieneko zigorrari.

2008ko apirilaren 24an, kontuan harturik espetxean eginiko lanarengatik zigor-arintzea, espetxe-agintariak proposatu zuten Inés del Río kalera tzea 2008ko uztailearen 2an. Alabaina, 2008ko maiatzaren 19an, hots, zigorra betetzeko hilabete falta zela, Auzitegi Nazionalak espetxe-agintariari eskatu zien beren kalkulak berregin zitzatela "Parot doktrina" aplikatuz; ondorioz, Auzitegi Nazionalak ezarri zuen 2017ko ekainaren 27a izanen

zela behin betiko kaleratze-data. Inés del Río-ko Auzitegi Nazionalen aurkezturiko errekursoak eta Konstituzio Auzitegian aurkeztu zen babes-errekursoak ez zuten arrakastarik izan.

Konstituzio Auzitegiaren ezezkoa zela-eta, nafar presoak errekursoa aurkeztu zion Estraburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiari, presoaldia luzatzen zion 197/2006 epaiaren aurka.

Uztailaren 10ean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aho batez onartu zuen aurkezturiko errekursoa, eta Espainiako Estatuak kondenatu zuen 30.000 euroko ordaina ematera kalte moralengatik, eta beste 1.500 euro, kostuengatik. Halaber, presoak "ahalik eta epe laburrenean" askatzera premiatu zuen, adieraziz 2008ko uztailearen 3az geroztik preso edukitzea "irregularra" dela eta horrek Giza Eskubideen Hitzarmeneko 5. artikulua urratzen duela.

Testuinguru honetan, Inés del Río Prada Tafallako herritarraren oinarritzko eskubideen urraketa zatituta jotzen dugu. Egoera horretan bertan aurkitzen dira beste sei nafar preso; horietako hiruk eritasun larriak dauzkate. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2012ko uztailearen 10eko epaiak betetzera eta Inés del Río Prada Tafallako herritarra ahalik eta denbora-epe laburrenean askatzera.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epai hori bera hedatzera 197/2006 epaiak aplikatu zaien gainerako nafar presoari, eta haiek ahalik eta denbora-epe laburrenean askatzera.

Iruñean, 2012ko irailaren 5ean

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Bakartxo Ruiz Jaso



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue Bideko seinalizazioa hobetu dezan.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da

Donejakue Bideko seinalizazioa hobetu dezan. Mozio hori 2012ko ekainaren 1eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Inasako lanpostuak mantentzeko formulak bila ditzan.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Biken-di Barea Aiestaran jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Inasako lan-

postuak mantentzeko formulak bila ditzan. Mozio hori 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren bitartekoak ezar ditzan, aurreikusitako egunean ordain daitezen Prepara programako langabetuei bideratutako prestazioak.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Biken-di Barea Aiestaran jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren bitartekoak ezar ditzan, aurreikusitako

egunean ordain daitezen Prepara programako langabetuei bideratutako prestazioak. Mozio hori 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez baztertzen baita Etxarri-Aranazko Udalak iragan irailaren 3an onetsitako mozioa .**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1.- Baztertzen du Etxarri-Aranazko Udalak iragan irailaren 3an onetsitako mozioa.

2.- Babesten du Guardia Zibilaren eta Foruzaingoaren presentzia herri horretan.

3.- Elkartasuna eta babesa adierazten die Etxarri-Aranatzen zerbitzua ematen duten Guardia Zibileko eta Foruzaingoko kideei, udaletik pairatzen dituzten presioen aurrean.

4.- Nabarmentzen du Estatuko Segurutasun Indar eta Kidegoen lanak ziurtatzen duela herritarren eskubideak udalerrri horretan betetzea.

5.- Deitoratzen du Etxarri-Aranazko Udalaren errespetu falta Nafarroako errealtatearekiko, erki-dego autonomia baita, Euskaditik bereizia eta Espainian elkartasunez integratua, hori baita Foru Komunitateko herritar gehien-gehien herri-borondatearen adierazpena.

6.- Adierazten du onetsitako mozioan jasotako hitzek eta adierazpenek ez dutela ezertan ere laguntzen Etxarri-Aranazko bizikidetasuna hobetzen, zeina eskubide demokratikoekiko errespetu erabatekoan oinarritu behar baita.”

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu NUPeko ikasle eta langileen murrizketen aurkako aldarrikapenak guztiz zilegi direla eta haien erabateko adierazpen askatasunez manifestatzeko eskubidea ziurtatu behar dela.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak uste du NUPeko ikasle eta langileen murrizketen eta tasa-igoeraren

aurka eginiko aldarrikapenak erabat zilegi direla eta haien erabateko adierazpen askatasunez manifestatzeko eskubidea ziurtatu behar dela.”

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Osasunbideak eginiko lizitazioan ezarritakoa betetzen dela ziurtatzeko eginen diren kontrolei buruzkoa.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Osasunbideak eginiko lizitazioan ezarritakoa betetzen dela ziurtatzeko eginen diren kontrolei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Mediterránea de Catering enpresak –zeina ospitale-sukaldeko zerbitzuaren esleipen-hartzaile baita– Murtziako San Javier y Santa Lucía ospitaleko ospitale-sukaldearekin eginiko kudeaketari dagokionez, abusuz kobratu izan dio Murtziako erkidegoko Osasun Kontseilaritzari, produktu “estrak” direla-eta. Zehazki, San Javier y Santa Lucía ospitale publikoko sukaldean kudeaketan. (Esne-litroa 4,60 euroan kobratu zen, eta tea, 3,60 euroan). Jokabide hori salatu egin dute CCOO sindikatuak eta Cartagenako IU koalizioak.

Mediterránea de Catering enpresak konpromisoa hartu zuen, Murtziako ospitale horren lizitazioan, hotzeko sukaldaritza-sistema guztia instalatu eta abian jartzera zentro horretan (elikagaiak prestatzea). Egiazki, inoiz ez zuen bete kontratuaren zati hori, eta San Javier y Santa Lucía ospitaleko instalazioak berotze-unitate huts izatera mugatu ziren, enpresak Alacanten zeukan beste instalazio batean prestatutako eta handik Murtziara garraiatutako janari izoztua berotzekoa.

Bestalde, Mediterránea de Catering-en akzioen ehuneko 75 lbersuizas bezalako entitateena da, zeinek balore merkatuan jarduten baitute arrisku-kapitalaren funts deiturikoen bidez. Finantza-merkatuaren gaur egungo krisi- eta ezegonkortasun-egoeran, asaldagarria iruditzen zaigu horrelako entitate finantzario eta espekulatiboaren eskuetan uztea ospitale-sukaldean kudeaketa, kontuan hartuta zer nondik norako dituen ospitaleraturiko gaixoak elikatzeak eta haien dietak terapeutikoak direla.

Aurrekari horiek horrela, honako galdera egiten ditugu:

Zer kontrol eginen da Osasunbideak eginiko lizitazioan ezarritakoa betetzen dela ziurtatzeko, eta elikagaien prestaketa-prozesu guztia Nafarroako Ospitalegunearen instalazioetan egin dadin?

Zer-nolako bermeak ematen ditu tankera horretako enpresa batek kalitatezko zerbitzu jarraitua mantentzearen gainean, baita finantza-merkatuetan egiten duen jarduera espekulatiboaren ondorioz balizko ezbeharrak jasan ditzakeenerako ere?

Iruñean, 2012ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, jakiteko zer neurri hartu dituen Nafarroako Gobernuak Nafarroako iparraldeko eskualdeek LTDko berezko lizentziak izan ditzaten.**

### *AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zer neurri hartu dituen Nafarroako Gobernuak Nafarroako iparraldeko eskualdeek LTDko berezko lizentziak izan ditzaten.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltzarreko araudiari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

LTD bidezko lizentzia banaketa berrirako esleipen epeak irekiak dira. Jada plegua kalean da eta ikusi ahal izan dugunez, 2 lizentzia eskainiko dira Nafarroa mailakoak eta beste 20 tokiko telebistetarako lizentziak. Tokikoak diren horien Iruñea, Lizarra, Zangoza, Tafalla eta Tuterakoak dira.

Tokiko demarkazioen banaketan, ordea, bada gero eta larriago bilakatzen ari den akats bat eta horri konponbidea emateko bidea ireki zuen Parlamentuak. Hain zuzen ere, Iruñeko demarkazioaren zabalak hainbat eremu gainditzen ditu eta eremu horiek berezko demarkaziorik gabe uzten, berez, lizentziak eskuratzeko aukerarik gabe. Egoera horretan dago Xaloa TB esaterako, biziraupenerako arazo handiekin haien emisio eremuak ez duelako demarkaziorik.

2012ko martxoaren 23an Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak oniritzia eman zion, gainera, deklarazio instituzional bati, non argi azaltzen baitzen Xaloa TBren funtzio sozialaren aitorpena eta Nafarroako iparraldean dauden beharrei erantzuteko demarkazio ezaren aurrean, Nafarroako Gobernuak egin beharrekoak egitea egoera hau zuzen zedin.

Jakinki telebista honen biziraupena jokoan dagoela.

Zein neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroa iparraldeko eskualdeek berezko lizentziak izan ditzaten? Noizko aurreikusten dira lizentzia hauek esleitzeko moduan izanen direla?

Iruñean, 2012ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

## **Galdera, ospitaleguneko sukaldeei buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, ospitaleguneko sukaldeei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko araudiak dionari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera egin nahi dio, idatziz erantzun dezan.

Dirudienez, irailaren 16an hasiko da ospitaleetako sukaldeetako obra. Honen harira, honakoa jakin nahi dugu:

- Behin obra bukatuta, eta zerbitzua enpresa pribatuaren esku geratzen denetik aurrera, non ekoiztuko da janaria? Bertan egingo da edo kanpotik ekarriko dute?
- Zenbateko epea izango da obra amaitzeko? Tarte horretan nola kudeatuko da janariaren presaketa?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak 2012an Moderna Fundazioari eginiko ekarpenari buruzkoa.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak 2012an Moderna Fundazioari eginiko ekarpenari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Moderna Fundazioari buruzko ondoko galderak aurkezten ditu, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

– Nafarroako Gobernuak Moderna Fundazioari 2012an eginiko ekarpen ekonomikoa. Nafarroako Gobernuaren ekarpenak ekitaldi horretan bertan fundazioaren aurrekontuaren gain egiten duen ehunekoa.

– Moderna Fundazioaren 2012ko urtealdi-aurrekontua, kontzeptua xehakatu.

– 2012ko ekitaldian Moderna fundazioko zuzendari nagusiak eta zuzendariordeak duten ordainsaria.

– Moderna Fundazioaren patronatuaren osategia, galderari erantzuten zaion egunean.

Iruñean, 2012ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, gastu-mugaren zenbatekoak 2000tik 2013ra izandako bilakaerari buruzkoa.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, gastu-mugaren zenbatekoak 2000tik 2013ra izandako bilakaerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkezten ditu, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

– Gastu-mugaren zenbatekoaren bilakaera 2000tik 2013ra bitartean.

– Zerga eta tasa bidezko diru-sarreraren bilakera. Adieraz bidez bai aurreikuspenaren zenbatekoa bai eta ekitaldi bakoitzaren amaierako zenbateko erreala, aipaturiko epe horretan bertan.

– Urte bakoitzaren arabera xehakatzea eta aurrekontu orokorraren ehunekoetan adieraztea zer bilakaera izan duen langile-gastuak ekitaldi horietan bertan, Nafarroako aurrekontu orokorren guztizko zenbatekoarekin alderatuta.

Iruñean, 2012ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko langile kopuruaren bilakaerari buruzkoa.**

*ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko langile kopuruaren bilakaerari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuaren langile-kopuruaren bilakaera 2000-2013 epean, urte bakoitzeko abenduaren 31ko plantilla organikoaren arabera, eta zehaztuta funtzionario, lan-kontratadun langile finko, estatutupeko langile eta behin-behineko langileak.

Iruñean, 2012ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

## **Galdera, men ez egitea eta eraso egitea leporatuta Foruzaingoak Larragan gazte bat atxilotu zuela-eta, gertakari horren inguruabarrei buruzkoa.**

*IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA BIHURTZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Bakartxo Ruiz Jaso andreak idazki bat aurkeztu du. Horren bidez eskatzen du idatziz erantzuteko galdera bihurtzea bere garaian ahozko erantzuna Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean jasotzeko egin zuen ondorengo galdera hau: "Galdera, men ez egitea eta eraso egitea leporatuta Foruzaingoak Larragan gazte bat atxilotu zuela-eta, gertakari horren inguruabarrei buruzkoa." Idazki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela men ez egitea eta eraso egitea leporatuta Foruzaingoak Larragan gazte bat atxilotu zuela-eta, gertakari horren inguruabarrei buruzko galdera (2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) idatziz erantzuteko galdera bihurtzeari dagokionez.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**2/2012 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 25ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 2/2012 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 25ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea ezagutzen duela 2/2012 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 25ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**2/2012 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 25ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan bere tributu-ahalmena erabiliz, Estatuan unean unean indarra duten oinarrizko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatu behar ditu;

hala ere, aitorpena eta ordainketak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena arautzean ezartzen duenez, tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Foru Komunitatean Estatuan indarra duten arau funtsezko eta formazko berberak aplikatzera, Nafarroako Gobernuak tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatutako 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapenei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, "tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu" izena emanen zaie.

Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu du, zerga tasak igotzeko: orokorra, 100eko 18tik 100eko 21era, eta murriztua, 100eko 8tik 100eko 10era. Helburua gure herrialdea Europako gainerako kideen parean jartzea da, izan ere, horietako gehienetan zergaren batez besteko tasa 100eko 15etik 25era bitartekoa da, eta Espainiakoa, berriz, 100eko 12,2koa.

Horrekin batera, baliokidetasun errekarguaren tasetatik bi aldatuko dira: orokorra 100eko 4tik 100eko 5,2ra igoko da, eta zerga tasa murriztua aplikatu behar zaien ondasunen entregari aplikatu beharrekoa 100eko 1etik 100eko 1,4ra igoko da.

Modu berean igoko dira nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziaren konpentsazioei dagozkien tasak, 100eko 10ekoa eta 100eko 8,5ekoa izatetik 100eko 12koa eta 100eko 10,5ekoa izatera, hurrenez hurren.



Aldi berean, tributuaren oinarria handitzen da, zenbait ondasun eta zerbitzuri aplikatu beharreko karga- tasa murriztua izatetik orokorra izatera pasatuko baita, honakoei zehazki: lore eta landare apaingarriak, ostalaritzako zerbitzu mistoak, antzerkiko, zirkoko eta gainerako ikuskizunetako sarrerak, pertsona fisikoak diren artistek emandako zerbitzuak, hileta zerbitzuak, ile-apainketako zerbitzuak, telebista digitaleko zerbitzuak eta arte-lanen erosketa.

Estatuko 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legeak aldaketak ezarri zituen gas entreegi eta berokuntza edo hozte sareen bidezko gas eta bero entreegi dagokionez.

Arestian adierazitakoarekin bat, beharrezkoa da Foru Komunitateak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeari dagozkion aginduak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko araudiak araubide erkidean izan duen aldaketara egokitzea.

Aipatutako legegintzarako eskuordetzea erabiliz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu baten bidez ematen dira abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikulua horri jarraikiz Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak, hau da, karga-tasak igotzeko eta tributuaren oinarria handitzeko.

Foru Komunitateko arauaren indarra hartzeak eta Estatuko baliokideenak ondorioak batera izan ditzaten, berariaz xedatzen da zein egunetatik aurrera izanen duten eragina 19/1992 Foru Legeari egindako aldaketek.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak proposaturik, bi mila eta hamabiko uztailearen hogeita bostean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

**DEKRETATU DUT:**

**Artikulu bakarra.** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu dira, eta ondoren azaldu bezala gelditu dira:

Bat. 8.2 artikulua, 1. zenbakia.

“Lehengoa. 6. artikulua irenilduan, eraikin bat altxatu edo zaharberritzea helburu duten obrak, haiek gauzatzen dituen enpresaburuak materialen zati bat jartzen duenean; betiere, haien kostua zerga-oinarriaren %40tik gorakoa bada.”

Bj. 13.1 artikulua, f) letra. 2012ko uztailearen 1etik aurrerako ondorioekin.

“f) Europar Batasuneko lurraldean dagoen sare baten bidez nahiz sare horrekin konektatutako edozein sareen bidez egiten diren gas entreegi, argindar entreegi edo berokuntza edo hozte sareen bidez egiten diren bero nahiz hozte entreegi dagozkien ondasun-eskurapenak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 68. artikulua zazpigarren idatz-zatiarekin bat zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat hartzen direnak.”

Hiru. 31.1 artikulua, 4. zenbakia. 2012ko uztailearen 1etik aurrerako ondorioekin.

“Laugarrena. Aurreko zenbakietan xedatutakoari kalterik egin gabe, gas eta argindar entregak, eta berokuntza edo hozte sareen bidezko bero edo hozte entregak jasotzen dituzten enpresaburuak edo profesionalak, bai eta enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoak ere, baldin eta entrega horiek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 68. artikulua zazpigarren idatz-zatiarekin bat zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat hartzen badira, eta lurralde horretan finkatuta ez dagoen enpresaburu edo profesional batek eginak badira, eta enpresaburu edo profesional horri Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako Espainiako Administrazioak esleitutako identifikazio zenbakia jakinarazi bazaio.”

Lau. 36.1. artikulua.

“1. Zergaren tasa 100eko 21ekoa izanen da, hurrengo artikuluan xedatutakoa salbu.”

Bost. 37. artikulua.

“37. artikulua. Zerga-tasa murriztuak.

Bat. 100eko 10ko tasa aplikatuko da eragiketa hauetan:

1. Honako ondasun hauen entregak, Europar Batasunaren barneko eskurapenak edo inportazioak:

Lehena. Hainbat substantzia edo gai, edozein jatorritakoak direla ere, baldin eta beren ezaugarri, aplikazio, osagai, prestaketa eta kontserbazio egoerarengatik, ohikotasun eta egokitasunez erabili ahal badira pertsonen nahiz animalien elikaduran, Elikadura Kodean eta hura garatzeko emandako xedapenetan ezarritakoaren arabera, edari alkoholunak izan ezik.

Edari alkoholuntzat hartzen da pertsonen irentsiz kontsumi dezaketen eta alkohol etilikoa duen likido oro.

Zenbaki honen ondorioetarako, ez dira elikagaitzat hartuko ez tabakoa ez eta, entregatu, Euro-par Batasunaren barruan eskuratu, edo inportatu diren egoeran, pertsonak nahiz animaliek kontsumitzeko modukoak ez diren substantziak ere.

Bigarrena. Aurreko zenbakiak aipatzen dituen produktuak prestatzeko, zuzenean nahiz beste jatorri batzuetakoekin nahasirik, modu egokian erabili ohi diren animaliak, landareak eta gainerako produktuak.

Zenbaki honetan sartzen dira gizentzeko diren animaliak, gizaki nahiz animalien kontsumorako erabili baino lehen, eta aurrerako animaliak, haiek nahiz aurreko idatz-zatian aipatzen direnenak.

Hirugarrena. Ezaugarri objektibo, ontziratze, presentazio eta kontserbazio egoera kontuan hartuta, nekazaritza, oihangintza edo abeltzaintzan zuzenean, modu egokian erabili ohi diren ondasun hauek: haziak eta landare nahiz animalien ugalketarako materialak, soilik landare edo animalia jatorria dutenak; ongarriak, hondakin organikoak, osagarriak eta medeagarriak, herbizidak, landareen edo abereen osasunerako erabiltzen diren pestizidak; lur-estalki, tunel edo berotegi bidezko labore-etarako plastikoak, eta fruituak bildu aurreko babeserako paperezko poltsak.

Laugarrena. Pertsonen nahiz animalien elikadurarako egokia den ura, solido-egoeran badago ere, bai eta urreztatzea ere.

Bosgarrena. Animalientzako botikak, bai eta horiek lortzeko modu egokian erabili ohi diren medikuntzako substantziak ere.

Seigarrena. Zein ere aparatu edo osagarri, betaurreko graduatuak eta lentillak barne, beren ezaugarri objektiboek esker funtsez edo nagusiki gizakien edo animalien gabezia fisikoak berdintzeko erabil daitezkeenak, baita mugimendua eta komunikazioa murrizten dituztenak ere.

Zein ere produktu sanitario, material, ekipo edo tresna, objektiboki, gizakien edo animalien gaitzen prebentzio, diagnosi eta tratamendurako eta gaitz horiek arintzeko edo sendatzeko baizik erabili ezin direnak.

Zenbaki honetan ez dira kosmetikoak sartzen, ez eta norberaren higienarako produktuak ere, salbu eta konpresak, tanpoiak eta slip-babesleak.

Zazpigarrena. Etxebizitzarako erabil daitezkeen eraikinak edo haien parteak, garaje tokiak barne, bi unitate gehienez ere, bai eta haietan dauden eranskinak ere, batera eskualdatzen direnak.

Foru lege honi dagokionez, negozioko lokalak ez dira etxebizitzaren eranskinak hartuko, nahiz eta etxebizitzetarako eraikinekin edo haien parte batekin batera eskualdatu.

Eraisteko diren eraikinak, 17.1 artikulua 12. zenbakiko A) zatian, c) letran aipatzen direnak, ez dira etxebizitzetarako erabiltzeko moduko eraikintzat hartuko.

Zortzigarrena. Haziak, erreboilak, adaxkak eta landare jatorri soileko bestelako produktuak, lore eta landare biziak eskuratzeko erabil daitezkeenak.

## 2. Ondoko zerbitzu-emate hauek:

Lehenengoa. Bidaiarien eta haien ekipajeen garraioak.

Bigarrena. Ostalaritza, kanpaleku, bainuetxe eta jatetxe zerbitzuena eta, orokorrean, berehala hartzeko jaki eta edariena, hartzaileak aldeztatik eskatuta prestatzen badira ere.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren salbuespena dira ostalaritza, ikuskizun, diskoteka, dantzaleku, barbakoa eta horien parekoen zerbitzu mistoak.

Hirugarrena. Nekazaritza, oihangintza eta abeltzaintza ustiatzearen titularren alde egindakoak, haien garapenerako beharrezko direnak. Hona zein diren: landaketa, ereintza, txertaketa, ongarritzea, lanketa eta bilketa; produktuak biltzea eta atontzea, barne direlarik produktuak lehortzea, garbitzea, azala kentzea, zatitzea, siloratzea, biltegitzea eta desinfektatzea; animaliak hazi, zaindu eta gizentzea; lantzeko lurak berdintzea, zelaitzea edo mailakatzea; laguntza teknikoak; animalia eta landare kaltegarriak kentzea eta landaketak eta lurak fumigatzea; drainatzea; zuhaitzak moztea, bakantzea, ezpaltzea eta azala kentzea eta basoak garbitzea; eta albatari zerbitzuak.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa inolaz ere ez zaie aplikatuko ondasunen erabilera edo gozamenarako lagapenei edo errentamenduei.

Orobat, zerga tasa hau aplikatuko zaie nekazaritza kooperatibek beren kooperatiba jardueraren ondorioz eta beren helburu soziala betetzeko beren kideei egiten dizkieten zerbitzu-emateei, kideek denen makineria erabiltzea barne dela.

Laugarrena. Bide, parke eta lorategi publikoak garbitzeko zerbitzuak.

Bosgarrena. Hondakinak bildu, biltegitatu, garraiatu, baloratu edo suntsitzeko zerbitzuak, estolda publikoak garbitzekoak eta bertatik arratoi-

ak desagerraraztekoak eta hondakin urak bildu edo tratatzekoak.

Aurreko lerroaldearen barne dira hondakinak biltzeko erabiltzen diren ontzi normalizatuak laga, instalatu eta mantentzeko zerbitzuak.

Zenbaki honetan sartuta daude, halaber, lehorbarneko edo itsasoko uretan isurkinak bildu eta tratatzeko zerbitzuak ere.

Seigarrena. Liburutegi, artxibo eta dokumentazio zentroetan eta museo, arte galeria eta pinakoteketan sartzea.

Zazpigarrena. 17. 1 artikulua 17. zenbakian aipatzen diren zerbitzuen prestazioak, salbuetsita ez daudenean arau horren arabera eta artikulua honen Bi.2.3. zenbakian ezarritako zerga tasa aplikatzen ez zaienean.

Zortzigarrena. Afizionatuen mailako kirol ikuskitunak.

Bederatzigarrena. Merkataritza erakusketak eta azokak.

Hamargarrena. Etxebizitzetarako eraikinetan edo haien parteetan egindako zaharberitze eta konpontze lanak, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Hartzailera pertsona fisikoa izatea, enpresaburu edo profesional gisa ez jardutea eta obren xedeko etxebizitzak erabilera partikularra izatea.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, aipatu obren hartzailera jabeen elkarte bat denean, obra horiek ere zenbaki honetan sartuko dira.

b) Obren xedeko etxebizitza eraiki edo zaharberitzea haiek hasi baino bi urte lehenago bederen bukatu izatea.

c) Obrak egiten dituen pertsonak haietarako materialik ez jartzea, eta jarriz gero, eragiketaren zerga-oinarriaren 100eko 40tik gorako kostua ez izatea.

Hamaikagarrena. Etxebizitzetara soilik bideratutako eraikinak edo eraikinen zatiak erosteko aukera duten errentamenduak, garaje tokiak barne, gehienez ere bi, eta horiekin batera errentan hartzen diren haien eranskinak.

Hamabigarrena. Eraikinen, higiezinaren multzoen edo haien sektoreen, arkitektonikoki bereizirik badaude, txandakako aprobeitxamendurako eskubideen lagapena, eraikinak gutxienez hamar ostatu-leku baldin baditu, zerbitzu hauen gaineko araudian ezarritakoarekin bat.

3. Honako eragiketa hauek:

Lehenengoa. Obra exekuzioak, materialak ekarri nahiz ekarri gabe, nagusiki bizitzarako izanen diren eraikinak edo eraikin zatiak eraiki edo berritzeko asmoz, sustatzaileak eta kontratistak zuzenean eraturako kontratuen ondorio direnak, bertan diren lokalak, eranskinak, garajeak, instalazio eta zerbitzu osagarriak barne direla.

Eraikin bat nagusiki bizitzarako dela ulertuko da baldin azalera eraikiaren gutxienez ehuneko 50 horretarako erabiltzen bada.

Bigarrena. Aurreko lehen zenbakian aipatzen diren eraikinetarako sukalde eta bainugelako armairuak eta horma-armairuak saltzea eta instalatzea, baldin salmenta horiek eraikin horiek eraiki edo berritzea sustatzen duenarekin zuzenean eraturako kontratuen ondorioz egiten badira.

Hirugarrena. Obra exekuzioak, materialak ekarri nahiz ekarri gabe, eraikinen edo aurreko 1. zenbakian aipatu diren eraikin zatien Jabekideen Elkarrekin eta kontratistak eraikin horietako garajeak egiteko asmoz zuzenean eraturako kontratuen ondorio direnak, betiere obra exekuzio horiek kasuko Jabekideen Elkarte horien elementu komunak diren lur edo lokaletan egiten badira, eta jabe bakoitzari gehienez ere garajeko bi toki esleitzen bazaizkio.

Bi. 100eko 4ko tasa aplikatuko da eragiketa hauetan:

1. Honako ondasun hauen entregak, Europar Batasunaren barneko eskurapenak edo inportazioak:

Lehenengoa. Honako produktu hauek:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arruntaren ore izoztua eta ogi arrunt izoztua, soil-soilik ogi arrunta egiteko erabiltzen direnak.

b) Ogi egiteko irinak.

c) Edozein animaliak emandako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Fruta, barazkiak, tuberkuluak eta laboreak, Elikadura Kodearen eta hori garatzeko emaniko xedapenen arabera produktu naturalen izaera dutenak.

Bigarrena. Liburuak, egunkariak eta aldizkariak, soilik edo nagusiki publizitaterik ez badute,

baita prezio bakarrean horiekin batera banatzen diren osagarriak ere.

Zenbaki honetan sartuko dira obra exekuzioak, beti ere horien ondoko emaitza honakoak erdies-tea baldin bada: liburu, egunkari edo aldizkari bat pleguan edo jarraian, ondasun horien fotolito bat edo horien koadernatzea.

Ondorio horietarako, elementu osagarritzat hartuko dira zinta magnetofonikoak, diskoak, bide-okaseteak eta entzutekoak zein bideomagnetikoak diren antzeko euskarriak, liburu, egunkari edo aldizkariarekin unitate funtzionala osatzen dutenak, haien edukia hobetzeko edo osatzeko baliagarri badira eta betiere horiekin saltzen direnak, salbuespen hauekin:

a) Musika lanak soilik dauzkaten diskoak eta zinta magnetofonikoak, betiere horien merkatuko balioa horiekin batera entregatzen den liburu, egunkari edo aldizkariarena baino handiagoa denean.

b) Zineko filmak, telebistako saioak edo telesailak, fikziozkoak edo musikalak dauzkaten bideokaseteak eta bestelako euskarriak, entzutekoak nahiz bideomagnetikoak, betiere horien merkatuko balioa horiekin batera entregatzen den liburu, egunkari edo aldizkariarena baino handiagoa denean.

c) Aurreko letretan adierazitako euskarrietan edozein baliabideren bitartez grabatutako produktu informatikoak, batez ere beste bide batzuetatik merkaturatzen diren programak edo aplikazioak dauzkaten.

Ulertuko da liburuek, egunkariak eta aldizkariak nagusiki publizitatea dutela, editoreari diru-arreren ehuneko 75a baino gehiago bide horretatik ematen badiote.

Zenbaki honetan sartzen dira albumak, partiturrak, mapak eta marrazketa kaierak, gai eta tresna elektronikoak izan ezik.

Hirugarrena. Gizakiendako botikak, bai eta horiek lortzeko ohikotasun eta egokitasunez erabil daitezkeen medikuntzako substantziak, forma galenikoak eta tarteko produktuak ere

Laugarrena. Mugitzeko gaitasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak, Trafikolari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna onesten duenak, bere I. eranskineko 20. zenbakian aipatzen dituenak, Ibilgailuei buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak II.A erans-

kinean emandako idazketaren arabera, eta minusbalioren bat duten pertsonentzako baizik ez diren gurpil-aulkiak.

Gurpil-aulkian minusbaliatuak garraiatzeko autotaxi edo autoturismo gisa erabiltzekoak diren ibilgailuak, dela zuzenean, dela aldez aurretik egokiturik, hala nola ibilgailu motordunak, aldez aurretik egokiturik edo gabe, mugikortasun murriztua duten edo gurpil-aulkian ibili beharra duten minusbaliatuak garraiatzen ibiltzeko direnak, kontuan izan gabe haien gidaria nor den.

Aurreko lerroaldean sartzen diren ibilgailuei zerga tasa murriztua aplikatzez gero, eroslearen eskubidea aldez aurretik onartua izan behar da, eta ibilgailua zertarako den frogatu beharko du.

Foru lege honen ondorioetarako, 100eko 33ko edo gehiagoko minusbalioa dutenak hartuko dira pertsona minusbaliatutzat. Minusbalio maila frogatzeko, Foru Komunitateko gizarte ongizateko zerbitzuek luzatutako ziurtagiria edo ebazpena beharko da, edo bestela Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo erkidego autonomoetako organo eskudunek luzatutakoa.

Bosgarrena. Minusbalioa dutenentzako protesi, ortesi eta barneko inplanteak.

Seigarrena. Administrazioak babes ofizialeko araubide bereziko edo sustapen publikoko etxebizitza gisa kalifikatutakoak, entregak haien sustatzaileek egiten badituzte, eraikin berean dauden eta haiekin batera eskualdatzen diren garajeak eta eranskinak barne. Ondorio horietarako, garajeko tokiak ez dira bi baino gehiago izanen.

Martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bateginaren VII. tituluaren III. kapituluaren nahiz Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluko V. kapituluaren aurreikusitako araubide berezia aplikatzen duten entitateek eskuratutako etxebizitzak, baldin eta ondorengo errentamenduak sortutako errentei aplikatzen ahal bazaie, hurrenez hurren, aipatutako testu bateginaren 54.1 artikuluan edo aipatutako foru legearen 109. quinquies artikuluan 1. idatz-zatian ezarritako hobarria.

Ondorio horrekin, inguruabar horren berri emanen dio entitate erosleak subjektu pasiboari eragiketa egin aurretik, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

2. Ondoko zerbitzu-emate hauek:

Lehenengoa. Bigarren atal honen 1.4. zenbakiko lehenengo lerroaldean jasotako ibilgailuak eta

gurpil-aulkiak konpontzeko zerbitzuak eta autotaxiak eta autoak eta agindu horren beraren bigarren erroaldean aipatutako ibilgailu motordunak minusbalioa dutenentzat egokitzeko zerbitzuak, horien gidaria edonor izanik ere.

Bigarrena. Etxebizitzetara soilik bideratuta dauden eta Administrazioak araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren edo sustapen publikoaren kalifikazioa emana duten eraikinen edo eraikinen zatien errentamenduak, erosteko aukerarekin, garajeko tokiak barne, gehienez ere bi, eta horiekin batera errentan hartzen diren bertako eranskinak.

Hirugarrena. Telelaguntzaren zerbitzua, etxeko laguntzarena, gaueko eta eguneko zentroena eta egoitzako laguntzarena, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 15. artikuluko 1. idatz-zatiko b), c), d) eta e) letretan aipatzen direnak; betiere, zentro edo egoitzetako plaza itunduetan ematen badira, edo enpresei esleitutako lehiaketa administratibo baten ondoriozko prezioekin, edota zerbitzu horiei lotutako prestazio ekonomiko baten ondorioz -baldin eta prestazio horrek prezioaren 100eko 75etik gora estaltzen badu-, bi kasuetan aipatutako legean xedatutakoa aplikatuta.

Hirugarren zenbaki horretan xedatutakoa ez zaie aplikatuko foru lege honen 17.1. artikulua hamazazpigarren zenbakia aplikatuta salbuesten diren zerbitzuei.

Hiru. Artikulu honen Bat.1 eta Bi.1 idatz-zatietan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, foru lege honen 11. artikuluan aurreikusitakoarekin bat zerbitzu-emateak diren obra exekuzioei, baldin eta, haien berehalako emaitza ondasun bat eskuratzea izanik, ondasun horren entregari agindu horietan ezarritako tasa murriztuetako bat aplikatu ahal bazaio.

Aurreko erroaldearen edukia ez zaie aplikatuko obra exekuzioei, haien helburua baldin bada artikulu honen Bat.3 atalean aipatutako araubide bereziko babes ofizialeko edo sustapen publikoko etxebizitzak eraikitzea edo zaharberritzea.”

Sei. 75.5. artikulua.

“5. Artikulu honen 3. idatz-zatiak aipatzen duen zenbateko finkoko konpentsazioa kalkulatu da zenbaki horretan aipatzen diren produktuen edo zerbitzuen salmenta prezioari honako portzentaje hauen artean dagokiena aplikatuz:

Lehenengoa. 100eko 12, nekazaritzako edo oihangintzako ustiatzeetan lortutako produktu

naturalak entregatzen direnean eta ustiatze horien osagarri diren zerbitzuetan.

Bigarrena. 100eko 10,5, abeltzaintzako edo arrantzako ustiatzeetan lortutako produktu naturalak entregatzen direnean eta ustiatze horien osagarri diren zerbitzuetan.

Prezio horiek zehazterakoan ez dira kontuan hartuko eragiketa horien gaineko zeharkako tributuak, ez eta erosleari berezita kargatutako gastu erantsi edo osagarriak ere, hala nola komisioak, enbalajeak, porteak, garraioak, aseguruak, finantza-gastuak eta abar.

Diruzko kontraprestaziorik gabe egindako eragiketetan, entregatutako produktuen edo egindako zerbitzuen merkatu-balioari aplikatuko zaizkio portzentaje horiek.

Eragiketa bakoitzean aplikatuko den portzentajea, betiere, konpentsazioa eskuratzeko eskubidea sortzen den unean indarrean dena izanen da.”

Zazpi. 80.1. artikulua.

“1. Ondasun erabiliak edo artelantzat hartutako ondasun higigarriak, antigoaleko gauzak edo bildumako gaiak berriz saltzen dituzten subjektu pasiboek kapitulu honetan arautzen den araubide berezia aplikatuko diete ondoko ondasun entzegei:

Lehenengoa. Birsaltzaileak honakoei erositako ondasun erabilien, artelanen, antigoaleko gauzen eta bildumako gaien entzegei:

a) Enpresaburu edo profesional izaera ez duen pertsona bat.

b) Ondasunaren garraioa edo bidalketa hasten den Estatu elkartekideko Zergaren frankizia-araubideaz profitatzen den enpresaburu edo profesionala, betiere ondasun hori aipatutako enpresaburu edo profesionalaren inbertsio-ondasuna baldin bada.

c) Enpresaburu edo profesional bat, zergaz salbuetsiriko entrega baten bidez, 17.1 artikulua 26. edo 27. zenbakietan xedatutakoa aplikatu ondoren.

d) Beste subjektu pasibo birsaltzaile bat, bere entregari ondasun erabilien, artelanen, antigoaleko gauzen eta bildumako gaien araubide berezia aplikatu diona.

Bigarrena. Subjektu pasibo birsaltzaileak berak inportatutako artelanen, antigoaleko gauzen edo bildumako gaien entzegei.

Hirugarrena. Enpresaburu edo profesionali erositako artelanen entzegei, baldin eta artelan horien egile edo eskubidedunak badira.”

Zortzi. 106. artikulua.

“106. artikulua. Motak.

Ondokoak izanen dira baliokidetasun errekar-guaren tasak:

Lehenengoa. Oro har, ehuneko 5,2.

Bigarrena. 37.Bat artikuluan ezarritako zerga tasa aplikagarria duten ondasun entregetarako, 100eko 1,4.

Hirugarrena. 37.Bi artikuluan ezarritako zerga-tasa aplikagarria duten ondasun entregetarako, ehuneko 0,50.

Laugarrena. Tabako laboreen gaineko Zerga Bereziaren xede diren ondasun entregetarako, ehuneko 1,75.”

Bederatzi. Hamazazpigarren xedapen iragan-korra gehitzea.

“Hamazazpigarren xedapen iragankorra. Ondasun erabilien, artelanen, antigoaleko gauzen eta bildumako gaien araubide berezia.

Ondasun erabilien edo ondasun higigarrien subjektu pasibo birsaltzaileek, 81.1.Bosgarrena artikuluan aipatzen direnek, ondasun erabilien, artelanen, antigoaleko gauzen eta bildumako gaien araubide berezia aplikatu ahal izanen diete 81. artikuluan aipatzen diren birsaltzaileez beste enpresaburu edo profesionaleri erositako artelanen entzegei, erosketa horri zergaren tasa murriztua aplikatu baldin bazaio.”

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duen urtarrilaren 25eko 20/1999 Foru Dekretuaren 2. artikulua indargabetu da.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu honek 2012ko irailaren 1ean hartuko du indarra, bertan aurreikusitako diren ondorioekin.



